

IRUN ETA HONDARRIBIKO ALARDEAK ETA GENERO ORDENA. IKUSPEGI HISTORIKO BAT 1993-2008

Tesiaren egilea: Ilargi Bengoetxea Gartzia

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila/Institutua: Garaiko Historia Saila

Doktorego-programa: Garaiko Historia Doktoregoa

Jakintza-arloa: Garaiko Historia

Tesi-zuzendaria: Miren Llona González

Tesiaren laburpena:

1996an Hondarribiko eta Irungo Alardeen konfliktoak eztanda egin zuen, emakume batzuk alardeetan soldaduz jantzita sartu zirenean. Emakume horiek herrietako jaietan gizonen pareko parte-hartze aktiboa izan nahi zuten eta hori gauzatzeko moduak genero-ordena zalantzan jarri zuen. Genero-ordena zalantzan jartzean ordena sozial eta politikoa arriskuan geratu zen eta horren aurrean urte luzez iraungo zuen erreakzioa sortu zen, apurtutako ordena berrezarri nahian. Emakumeak bortizki kanporatu zituzten alardeetatik, bai eta errito horrek eraikitzen zituen herri-komunitateetatik ere, arauak hautsi zituzten disidenteak *abjektuaren* esparrura bidaliz. Herri-komunitateak gizonez osaturiko alardeen alde garatu ziren eta *gu/bestea* dikotomia sortu zuten, diskurtso eta irainen bitartez *bestearen* aldaera asko baliatuz. Hau abiapuntutzat hartuta, herriak eta komunitateak nola sortu eta garatu ziren ikusi dugu, genero-, klase- eta nazio-kontzepzio ezberdinak kontrajarri; apurtutako ordena berrezartzeko saiakeran erabilitako indarkeria, eraikitako komunitateak eta transmititutako emozioak nola artikulatu ziren ikertu dut; Trantsizioaren ondorengo egoera politiko eta soziala aztertu dut konfliktoarekin erlazioan, betiere Bidasoa parte zen jendarteko 90eko eta 2000ko hamarkadetako historia eginez, eta Bidasoako mugak gainditu zituzten arazo eta prozesuez hitz egin da.

Ikerketa-gaiak, Irungo eta Hondarribiko Alardeen konfliktoak, gaur egunean interes eta kuriositate handia pizten du. Izan ere, oraindik bizirik dagoen gatazka da, polemika handikoa gainera, eta askorentzat ulertezina. Bestetik, alarde mistoen aldeko borroka Euskal Herriko Mugimendu Feministaren mugarri ere badela uste dute hainbat adituk. Hau da, nahiz eta Bidasoaldean kokatutako konfliktoa izan, Euskal Herri osoan eragina eta ondorioak izan ditu eta horrek interes lokala gaintzen du guztiz. Alardeen gatazkaren inguruko ikerketa historikoa da egin dudana, horren sorrera azalduz eta lehen hamabost urteetan gertaturiko prozesuak eta dinamikak aztertuz. Horrek lagunduko du beste hainbat konfliktotan errepikatzen diren elementuak identifikatzen, eta, batez ere, gatazka ulertzen eta berriro gerta ez dadin kontzientziak astintzen.

